



**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2005eKO EKAINA)**

**AZTERKETARIA**

**LEHEN DEITURA .....**

**BIGARREN DEITURA .....**

**IZENA .....**

**NAN .....**

**EGUNA: 2005eko ekainaren 1a**



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2005eKO EKAINA)

### 1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

**Honako galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukera ezazu erantzun zuzen eta egokiena, eta idatz ezazu amaieran dagoen taulan erantzun horri dagokion letra. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.**

1. "Adituei sinestera, arazo horrek luze joko du." Hau da:
  - a) Adituak direla eta, arazo horrek luze joko du.
  - b) Adituen ondorioz, arazo horrek luze joko du.
  - c) Adituek esandakoaren arabera, arazo horrek luze joko du.
  - d) Adituak aditu, arazo horrek luze joko du.
  
2. "Nik ez dizuet trabarik jarriko; ....., zeuek duzue erantzukizuna."
  - a) baino
  - b) hala baina
  - c) aldiz
  - d) aitzitik
  
3. Arazo honetan ez dago .....
  - a) ezer eginik
  - b) zer eginik
  - c) zer egiterik
  - d) ezer ez egiterik
  
4. "Aspertu naiz hemen".....
  - a) Zer, joaten gara beste leku batera?
  - b) Zer, goaz beste leku batera?
  - c) Zer, goazen beste leku batera?
  - d) Zer, joango gara beste leku batera?
  
5. Aukera ezazu zuzena.
  - a) Behin eta berriro eskatuagatik, ez dizu baimena emanen.
  - b) Autopsiak agertu zuen zergatia: "Pozoia hartuagatik hil zen".
  - c) Hainbertze saiatarren ez zenituzten ikasketak bukatu.
  - d) Horregatik galdu duzu trena, berandu ailegatuarren.
  
6. Aukeratu euskara batuan zuzena dena.
  - a) Bai, zuk badinostazu baleike hori holan izatea.
  - b) Bai, zuk badinostazu baliteke hori horrela izatea.
  - c) Bai, zuk badiostazu baliteke hori horrela izatea.
  - d) Bai, zuk badiostazu baleike hori hola izatea.



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2005eKO EKAINA)

7. “Baldintza ..... ados nagoela adierazten dizut”. Zein da zuzena euskara batuan?
- horiek guztiekin
  - guzti horiekin
  - horiekin guztiekin
  - horiekin guztihoriekin
8. "Berandu ailegatu zen; ....., autobusera igo ahal izan zen."
- gainera
  - hala eta guztiz ere
  - halatan bada
  - baita ere
9. “..... berezia izan da .....” .
- 1992 urte / Espaiñian
  1992. urtea / Espaiñian
  - 1992 urtea / Espainian
  1992. urtea / Espainian
10. “..... euriak harrapatu ninduen”.
- Autobusatik jaistean
  - Autobusetik jaistean
  - Autobusetik jaiztean
  - Autobusatik jeistean
11. “Ez zenuke horrela egon behar, ..... poltsikoetan”.
- eskuekin
  - eskuak
  - eskuez
  - eskuarekin
12. “Gaur betetzen dira 25 urte Euskal Herriko Unibertsitatea sortu zela. Egun seinalatua, .....” .
- aitzitik
  - beraz
  - berriz
  - horretaz
13. “Gaur goizean txorien ..... entzun ditut”.
- irrintziak
  - urrumak
  - txintak
  - txilinak



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2005eKO EKAINA)

14. “Gaur irakasle berri bat etorri zaigu, lau hizkuntza .....” .
- dakienak
  - dakizkiena
  - dakizkienak
  - dakizkiela
15. “Gehienez ere, hogeit hamar urte edo izango ditu”. Beste era batera esanda:
- Oso goitik jota, hogeit hamar urte izango ditu.
  - Goia jota, hogeit hamar urte izango ditu.
  - Gehienez ere, hogeit hamar urte izango ditu.
  - Goien jota, hogeit hamar urte izango ditu.
16. “Gibraltarko gatazkak Europar Batasuneko barne mugen desagerpena oztopatzen du”.
- Gibraltarko arazoari esker aiseago eroriko dira mugak Europan.
  - Gibraltarren erruz Europako mugak desagertu egingo dira.
  - Gibraltarko arazoa dela eta, Europako mugak ez dira hain erraz desagertuko.
  - Gibraltarko akordioak Europako mugen desagerpena ekarriko du
17. “Gizon hura ere ..... bilakatu zen oihanean”.
- otsoan
  - otsotzat
  - otsoa
  - otso
18. “Goiz ....., ez dago eguerdian tontorrean egoterik”.
- irten ezik
  - irten ez ezik
  - irten ezkerre
  - ez irtetekotan eta
19. Honako hauetatik zein da eraikuntzan erabiltzen EZ den lanabesa edo tresna?
- garabia
  - txirrika
  - aldamioa
  - titarea
20. Hurrengo esaldietatik zein dago **OKER**?
- Lakuaren ondoan jarri genuen kanpin-denda.
  - Bihotzaren hondo-hondotik esaten dizut hau.
  - Zuk hitz egiten duzu ondoen.
  - Gerra hondoan ikusi nuena ikaragarria izan zen.



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2005eKO EKAINA)

21. Hurrengo esaldietatik zein dago **OKER**?
- Hainbat eskolatako irakasleek baietz esan diote aldaketari.
  - Umeak gelan sartzen ziren ahala, beren tokietan esertzen ziren.
  - Egitaraua ikusita, argi dago merezi duela jaietara etortzea.
  - Argi gutxiko aretoa eman zieten hitzaldia egin zezaten.
22. “Joseba ezagutuko ez dut, ba!” Beste era batera esanda:
- Joseba ezagutzen dut.
  - Ez dut Joseba ezagutzen.
  - Ez dut Joseba ezagutzen, baina ezagutuko dut.
  - Ez dut Joseba ezagutzen, ezta ezagutuko ere.
23. “Lortu zuen gainditzea, ..... asko kostatu .....”.
- nahiz eta / arren
  - nahiz eta / bazitzaion ere
  - nahiz / zitzaion
  - nahiz / arren
24. Lur malkarren higadura.
- luizia
  - luberria
  - lubakia
  - lurrikara
25. “Nirekin etorri nahi duenak har ..... bere gurutzea eta jarrai .....”.
- beza / bekit
  - dezala / zakizkit
  - dezan / bedi
  - zezan / biezait
26. Nola esaten zaio erraz haserretzen denari?
- haserrakor
  - haserragarri
  - haserrekor
  - haserradura
27. Nola idazten da letraz da honako data hau euskara batuan? 1876-2-20.
- Mila zortzirehun eta hirurogeta seiengo otsailak hogeia.
  - Mila eta zortzirehun eta hirurogeitamaseiko otsaileko hogeia.
  - Mila zortzirehun eta hirurogeita hamaseiko otsailaren hogeia.
  - Mila zortzirehun eta hirurogeita hamaseiaren urtarrilaren hogeia.



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2005eKO EKAINA)

28. “Non egon zarete? Lekeition, Ondarroan edo Bermeon?”.
- Hiruetan
  - Hirutan
  - Hiruotan
  - Hiruretan
29. Ondoko hitzetako batek ez du hatxerik behar. Zeinek?
- zihur
  - hurbil
  - haize
  - hurrengo
30. Ondokoetariko batean komaren erabilera zuzena da. Zein esalditan?
- Mikel, Jon, eta hirurok joango gara.
  - Gurekin bizi denak, badaki hori.
  - Gaur egun, arazo hau, ez da larria.
  - Min ematen dit, neuri behintzat, hori entzuteak.
31. Ondokoetariko batean ortografia huts bat dago. Zeinetan?
- banan-banan
  - hitzez-hitz
  - bat-batean
  - batik bat
32. “..... oso kezkatuta etorri da”.
- Medikuarenetik
  - Medikuarengandik
  - Medikunetik
  - Medikuagandik
33. “..... pozik atera zen futbol partidatik”.
- Ikuslegoa
  - Ikusleria
  - Ikusmira
  - Ikusledia
34. Puntuazio markei dagokienez, zein da zuzen idatzitako esaldia?
- Harrigarria! Nork eta zuk, nire anaia zaren horrek, hori esatea ere!
  - Harrigarria! Nork eta zuk, nire anaia zaren horrek hori esatea ere?
  - Harrigarria; nork, eta zuk nire anaia zaren horrek, hori esatea ere.
  - Harrigarria, nork eta, zuk nire anaia zaren horrek hori esatea ere!



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2005eKO EKAINA)

35. “Txapelketan parte hartzeko epea ..... amaituko da”.
- hileko 15ean
  - 15 egunean
  - hilak 15ean
  - hilaren 15ean
36. “Usteak erdia ustel”. Noiz esaten da normalean?
- Norbaiten iritzia zuzena ez dela esateko.
  - Ustez, zerbait erdi ustelduta dagoenean.
  - Gauzak uste ez bezala ateratzen direnean.
  - Norbaitek gezurra esaten duenean.
37. Zein da zuzena “filma zuzendu duenak sari asko jaso ditu” adierazteko?
- Filmaren zuzendariak sari asko jaso ditu.
  - Filmeko zuzendariak sari asko jaso ditu.
  - Filmetako zuzendariak sari asko jaso ditu.
  - Filma zuzendariak sari asko jaso ditu.
38. Zein da zuzena?
- Autobusa berandu iritsi delaren aitzakia jarri du, eskolara ez etortzeko.
  - Autobusa berandu iritsi denaren aitzakia jarri du, eskolara ez etortzeko.
  - Autobusa berandu iritsi delako aitzakia jarri du, eskolara ez etortzeko.
  - Autobusa berandu iritsi deneko aitzakia jarri du, eskolara ez etortzeko.
39. Zein da zuzena?
- Bost pisutako etxea sal erazi diote.
  - Bost pisuko etxea saldu arazi diote.
  - Bost pisuko etxea salarazi diote.
  - Bost pisutako etxea sal arazi diote.
40. Zein da zuzena?
- Ez du ardorik ekarri, nahikoa dagoenez.
  - Eztu ardorik ekarri, nahikoa baitago.
  - Ez du ardoa ekarri, nahiko bait dago.
  - Ez du ardorik ekarri, nahikoa dago eta.
41. Zein da zuzena?
- Gure ama 1931eko otsailaren 20an jaio zen.
  - Gure ama 1931ko otsailak 20an jaio zen.
  - Gure ama 1931ko otsailaren 20an jaio zen.
  - Gure ama 1931ko otsailak 20ean jaio zen.



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2005eKO EKAINA)

42. Zein da zuzena?

- a) Hamar pertsonarentzako igogailua jarri dute errektoreordetzan.
- b) Hamar pertsonentzako igogailua jarri dute errektoreordetzan.
- c) Hamar pertsonetako igogailua jarri dute errektoreordetzan.
- d) Hamar pertsonen igogailua jarri dute errektoreordetzan.

43. Zein da zuzena?

- a) Txetxu etor erazi dut.
- b) Txetxuri etorrerazi diot.
- c) Txetxu etorrarazi dut.
- d) Txetxuri etor arazi diot.

44. Zein da zuzena?

- a) Apirila osoan ez du horrenbeste euririk egin.
- b) Salakuntz gogorra da, frogarik gabe egina izateko.
- c) Gauz bat kontatu nahi dizut.
- d) Lapurreta hiruretan gertatu zen, lekuko batzuek adierazi dutenez.

45. Zein dago zuzen euskara batuan?

- a) Iaz ez genizuen diru-laguntzarik eman aurrekonturik gabe geratu bait ginen.
- b) Iaz ez genizuen diru-laguntzarik eman aurrekonturik gabe geratu baikin.
- c) Iaz ez genizuen diru-laguntzarik eman aurrekonturik gabe geratu baiginen.
- d) Iaz ez genizuen diru-laguntzarik eman aurrekonturik gabe geratu bait-ginen.

46. Zein forma EZ da erabili behar euskara batuan?

- a) Literatur lehiaketa bat antolatu du Hezkuntza Sailak.
- b) Literatur-lehiaketa bat antolatu du Hezkuntza Sailak.
- c) Literatura lehiaketa bat antolatu du Hezkuntza Sailak.
- d) Literatura-lehiaketa bat antolatu du Hezkuntza Sailak.

47. “Zenbait mendi ..... uxatu dituzte basabereak”.

- a) ederretik
- b) ederratik
- c) ederratatik
- d) ederretatik

48. “Zenbat balio du .....?”

- a) kilo bat haragik
- b) kilo batek haragi
- c) haragiaren kiloak?
- d) kilo bat haragiak





## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2005eKO EKAINA)

49. Zer da lerdea?

- a) mukia
- b) urina
- c) adurra
- d) gernua

50. “Zertarako zabaldu duzu leihoa?”

- a) Arnasa hobeki hartzearren.
- b) Arnasa hobeki hartu arren.
- c) Arnasa hobeki hartu nuelakoan.
- d) Arnasa hobeto hartzea nahi izango dudalako.



**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2005eKO EKAINA)**

**ERANTZUN-ORRIA**

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2005eKO EKAINA)

### 2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

**Honako testu honi buruzko 10 galdera duzu testuaren amaieran. Galdera bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukera ezazu erantzun zuzen bakarra eta adieraz ezazu amaieran dagoen taulan erantzun zuzenari dagokion letra. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik.**

#### GENETIKAREN HASTAPENETAN

Brno, 1965eko abuztuaren 7a. Jendetza ikaragarri bat biltzen da katedralaren inguruan tropelka, estu-estu eginik poliziak zorrotz zainduriko ateen aurrean. Lehenbiziko aldiz, ia hogeitaz urteren buruan, meza bat izatekoa da. Hala ere, elizkizunetara joateko irrika gorabehera, tenplura sartzea galarazia dute Brnoko herritarrek. Txekoslovakiako Errepublika Demokratikoko Zientzien Akademiak antolatua da zeremonia, ezohiko ospagai berezi bat dela eta: ilarretan ondoretasuna nola gauzatzen den azalduz Gregor Mendel-ek idatziriko lehenbiziko txostenaren mendeurrena. Helburua, bada, txekiar zientzialaririk handienetarikoa bat ohoratzea da, eta, bide batez, genetikaren sortze-agiritzat jotzen dena ospatzea.

Txekiar Akademiak mundu guztiko genetista-jendea gonbidatu du elkarretaratze batera, gai bikoitz harturik Mendelek jokaturako papera eta XX. mendearen lehen erdian genetikak egindako aurrerabidea. Mendel elizgizona zenez eta leku hartantxe meza emana, txekiar Akademiak erabaki du, zalantza askori aurre egin ondoren noski, bere heroiaren omenezko meza nagusi bat izatea bilkuraren azken ekitaldia. Meza hori, horratik, topaketetan partaide izan direnentzat da bakar-bakarrik. Ikuskari bitxia dugu, horrenbestez, katedral barruan. Alde batetik, ehunen bat iparramerikar genetista, egokieraz poz-pozik, baina zur eta lur, hala ere, herrialde komunista batean egoteaz. Beste alde batetik, ehunen bat sobietar genetista, aurpegiak zorrotz, besoak gurutzaturik, harri eta zur mezatan egoteaz. Han-hemenka sakabanaturik, berriz, ehunen bat europar eta txekoslovakiar genetista, aztoraturik hantxe iparramerikar blokearen eta sobietar blokearen artean harrapaturik egoteaz. Eta hara jende hori guztia aldi berean zutitu, Brnoko apezpikua hor baitator, bere segizioarekin urrats geldian, aldarerantz.

Ez dago dudarik: iritsi da Pragako udaberria! Mende guztian zehar, politikarekin nahasita egon da genetikak. Edozein herrialdetan, zientzia horren mendeurrena ospatzeko antolaturiko elkarretaratze bat omenaldi eskastzat joko zen. Garai hartan eta herri-demokrazia batean, ordea, besterik zen kontua. Halako bilkura ezin zitekeen egin harik eta genetikaren izena garbitu eta haren aurkari nagusiak neutralizatu arte. Izan ere, behiala Elizak Galileoren ideiak doktrinarekiko bateraezintzat kondenatu zituen bezala, halaxe debekatua zuten komunistek genetikak, marxismoaren printzipioekin berekin bateraezintzat jorik.

Ostrazismo hori hogeiko urteen amaieratik abiatua zen. Garai hartan, dialektikaren izenean, neolamarckar komunistek, karaktere bereganatuak ondoretasunez jasotzen zirelako hipotesiaren aldeko, eraso egin zieten —ez zientzia-argudioz armaturik, Engels-en testuez baizik— errusiar genetistei. Afera horretako heroiak ingeniari agronomo bat izan zen, Trofim Lyssenko. Hogeita hamarreko urteen hasieran, sona hartu zuen Lyssenkoren izenak, hark bere «aurkikuntza» esaten zionari ematea lortu zuen sentsazionalismo-kutsuarengatik; hots, udan ereindako gariaren uzta neguan biltzea ahalbidetzen zuten zenbait praktikari esker. Praktika horiek ez zuten originaletik deus ere, eta laster utziko ziren bertan behera. Bere emaitzek sendoturik, arrakasta itzeltzat



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2005eKO EKAINA)

baitzeuzkan berak, Lyssenkok ebatzi zuen genetika ez zela gai halako emaitzak behar bezala azaltzeko. Ez bat eta ez bi, bere teoria berezia apailatu zuen. Ordezko teoria bat, esperimendu-oinarririk gabea eta karaktere bereganatuen ondoretasunean oinarritua. Horrenbesterekin, setio eta eraso latzean oldartu zen Lyssenko sobietar genetika-eskola ordura arte bikain askoaren aurka.

Lyssenkoren adierazpenak irakurtzean, garbi ageri da, azal eta mami, haren ezgaitasun erabatekoa, haren ezjakintasuna, biologiarik oinarritzkoenari buruz ez ezik, baita zientzia-jardunbideari berari buruz ere. Aztoragarriena, ordea, Lyssenkoren abilezia ongi erakusten duena, zera da: bere tesietara ekarri zuela Stalin, eta, harekin batera, sobietar agintari guztiak, Estatua, Alderdia, justizia eta prentsa. Horri esker, garaipen erabatekoa lortu zuen bere arerioen aurka. Debekupean jarri zuen genetika praktikatzea zein irakastea. Lyssenkoren teoriari uko egin ziotenak Siberiara deportatu zituzten, eta asko ez ziren handik itzuliko. Jakina, Sobiet Batasunean zer, eta huraxe aplikatzen zen haren mendeko herrialdeetan. Hala, herri-demokrazien esparru guztian debekatu zen genetika. Budapest-en, Fakultate oso-osoak, errektorea buru zuela, hotsandiro eraman zituen komunetara, hantxetik behera botatzeko, ikerkuntzarako eta irakaskuntzarako baliatzen ziren drosofilabildumak.

Afera honetan txundigarriena, Lyssenkok eta haren jarraitzaileek erabilitako argudioak dira. Sobietar genetistekin eztabaidan ari zela, ez zituen sekula kontuan hartzen zientzia esperimentalaren datuak, hogeita hamar urtetsu lehenagotik hainbat herrialdetan pilaturiko ezin konta ahala emaitzak, animalien eta landareen ondoretasunari buruz analisi genetikoak plazaratuak. Lyssenkok halako balentria harrigarritzat zeuzkan nekazaritza-esperimentu haien arrakasta ez zeukaten halakotzat benetako biologoek, eta ez zen haietan deus ere kromosomen aurkako zaparrada haserre haiek justifikatzen zuenik. Lyssenko biologiaz mintzo zela, haren jarduna hain zen hutsala, hain, are, irri-eragingarria, non orobat deuseztatzen baitzuen beraren agronomia-asmabideei bestela apika eman zekiokoen kreditu apurrik apurrena ere. Horixe kontatzen zuen Boris Ephrussi-k, Frantzia izan den lehenbiziko genetika-irakasleak. Errusiarra jatorriz, aukera izan zuen, bere garaian, luze aritzeko Lyssenkorekin eztabaidan. Ephrussiren arabera, bere temak hartutako gizona zen Lyssenko, zirkinik ere egin gabe botatzen zituena izugarrikeriarik handienak. Lyssenkorentzat eta haren jarraitzaileentzat, espezieen nozioa ideia burges hutsa zen. Lau haizeetara iragarri zituzten, lotsaren arrastorik gabe, espezie bat beste bat bihurtzeko beren esperimenduak: garia zekale, oloa garagar, aza arbi-aza, eta gero hura izei. Eragiketa horiek izan, nonbait, zientzia progresistaren arrakastaren lekuko! Izan ere, Lyssenkorentzat, benetako eztabaida ez zen zientziaren mailakoa, ideologiaren mailakoa baizik. Beti aitzakia bera ipintzen zion genetikari: materialismo dialektikoarekin bateraezina izatea. Hantxe zegoen berarentzat auziaren benetako gune eta mamia, hantxe baino ez baitzezakeen lortu Stalinen eta sobietar botere guztiaren adostasuna eta laguntza. Han zuen, eta han baino ez, nolabaiteko aukera irabazteko, bere ideiak nagusiarazteko, arerioak oinperatzeko. Eta kontua da bete-betea asmatu zuela horretan Lyssenkok. Hemendik heldu zein handik, mutur batetik zein bestetik, ezin inolaz ere uztartu genetika dialektikari. Genearen teoria ezin da adostu Engels-en araberako Izadiaren Dialektikarekin. Eta berdin gertatzen zen teoria darwindarrarekin, eboluzioaren hautespen-teoriarekin, hura ere ukatzen baitzuen Lyssenkok. Harentzat, karaktere bereganatuen ondoretasunak baino ezin zuen —hots, berak egiaztatutzat zeukan teoriak— modu iraunkorrean aldarazi izadia, eta, beraz, hura baino ezin ezkondu doktrina marxistarekin. Stalinentzat, beraz, batere zalantzarik ez.



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2005eKO EKAINA)

### 1. Zertarako bildu dira zientzialariak Brno-ko katedralean?

- a) Ilarretan ondoretasuna nola gauzatzen den azaltzeko.
- b) Txekoslovakiako Errepublikak Demokratikoko Zientzien Akademia ohoratzeko.
- c) Genetikaren sortze-agiritzat jotzen dena idazteko.
- d) Gregor Mendel txekiar zientzialaria ohoratzeko.

### 2. Elkarretaratzeko genetista guztiak zeuden aztoratuta eta harrituta. Zergatik?

- a) Denak arrazoi beragatik zeuden hala, aspaldian mezarik ez zelako izan.
- b) Genetista amerikarrak eta genetista sobietarrak arrazoi beragatik zeuden harrituta.
- c) Kexu ziren genetista guztiak, eta aldi berean zutitu ziren denak elizan, protesta eginez.
- d) Jatorri bakoitzeko genetistek arrazoi desberdinak zituzten zeuden bezala egoteko.

### 3. Genetisten elkarretaratze bat izan da Pragan.

- a) Pragan, beste edozein herrialdetan bezala, omenaldi eskastzat jotzen da hori.
- b) Zoriontzeko gertaera da Pragan, genetika eta politika lotu egiten dituelako elkarretaratze horrek.
- c) Zoriontzeko gertaera da Pragan, genetika eta politika bereizten hasiak direla esan nahi baitu.
- d) Udaberriarekin batera gertatu zen hori; martxoan, alegia.

### 4. Testuak diotenaren arabera, hurrengo adierazpenetatik zein da GEZURRA?

- a) Txekoslovakia eta antzeko herri-demokrazietan zientzia eta politika uztarturik egon dira.
- b) Beste edozein herrialdetan antzeko bilkura bat aski izango zen halako gertakari bat ospatzeko.
- c) Txekoslovakian ere genetikaren aurkariak neutralizatu arte itxaron behar izan zuten genetikaren sorreraren mendeurrena ospatzeko.
- d) Lehenagoko garaian Txekoslovakian-eta debekatua zegoen genetika, marxismoarekin ondo uztartzen ez zelako.

### 5. Nork zioen karaktere bereganatuak herentziaren bidez jasotzen direla?

- a) Neolamarckar komunistek.
- b) Engelsek.
- c) Ingeniari agronomoek.
- d) Genetista sobietarrek.

### 6. Testuak diotenaren arabera, hurrengo adierazpenetatik zein da GEZURRA?

- a) Zientziaz baliatuz ez, baizik ideologiaz baliatuz eraso zieten Trofim Lyssenkok eta abarrek errusiar genetistei.
- b) Zientziaren aurrerabidearen ikuspegitik, Lyssenkoren aurkikuntzarik handiena zera izan zen: udan ereindako gariaren uzta neguan biltzea.
- c) Lyssenkok uste zuen garaiko genetika ez zela gauza beraren esperimenduak esplikatzeko.
- d) Lyssenko nagusitu arte bikain askoa zen sobietar genetista-eskola.



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2005eKO EKAINA)

### 7. Zer dio testuak sobiet batasuneko genetikaren debekuaz?

- a) Lyssenkorekin bat zetozenak Siberiara deportatu zituztela.
- b) Sobiet Batasunean ez ezik, inguruko herrialde komunistetan ere ezarri zela debeku hori.
- c) Drosophila euliaz eginiko ikerketak bakarrik baimendu zirela garai hartan.
- d) Mendelen legeen kontrako teoria guztiak debekatu zirela.

### 8. Testuak dioenaren arabera, hurrengo adierazpenetatik zein da GEZURRA?

- a) Lyssenkoren adierazpenetatik beraren zientzia-ezjakintasuna ondoriozta daiteke.
- b) Lyssenkoren garaipenaren gakoa zera izan zen: sobietar agintari eta botereak bereganatu izana.
- c) Hala Sobietar Batasunean nola haren mendeko herrialde komunistetan erabat debekatu zen genetika.
- d) Genetisten tesiak gezurtatuz lortu zuen Lyssenkok bere teoriak nagusitzea.

### 9. Nolakoa zen Lyssenko?

- a) Lyssenkok bete-betean sinesten zituen bere teoria zoroak.
- b) Lyssenko Darwinen teorien jarrazaile sutsua zen.
- c) Temati egin zien aurre Stalin eta sobietarrei.
- d) Bat zetorren, oro har, genetisten teoriekin.

### 10. Lyssenko zientzialariari buruz hitz egiten da testuan:

- a) Komunisten garaian, egiten zituen esperimenduak zientzia progresistaren adierazgarritzat jotzen ziren.
- b) Stalinek esaten zion zer-nolako esperimenduak egin behar zituen.
- c) Bere komunismozaletasuna gorabehera, ez zen zientzialari txarra.
- d) Teoria darwindarra kontuan hartzen zuen bere teorietan, doktrina marxistarekin bat baitzetorren.

## ERANTZUN-ORRIA

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2005eKO EKAINA)

### IDAZLANA

Egingo duzun idazlanak 250 hitz izan behar ditu gutxienez. Mesedez, idatz ezazu boligrafoz eta gogoan izan ezazu azterketa egiteko duzun denbora. Amaitzean, eman iezaiezu azterketa osoa aztertzaileei. Idazlana egiteko A edo B hautatu behar duzu, eta aukera horietako bat garatzeko, azpian dituzun gaitako bat hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osoan). Ezinbestekoa da gai horri ongi lotzea idazlana garatzean. Idazlana euskara batuan egin behar da.

A) **Unibertsitateko** lankide batek laguntza eskatu dizu. Irakasle talde bat **aldizkari bat** ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, baina artikulu faltan egoten dira maiz. Hori dela eta, zure jakintza-arloko gairen baten berri eman dezazun eskatu dizute artikulu batean. Gogoan izan ikasleentzat ari zarela idazten, zabalkunde lanean alegia (ez testu akademikoa prestatzen). Hala nahi izanez gero, zeure iritzia ere plazara dezakezu, aukeratu duzun gaiaren inguruan.

B) **Eskolako apunteak** prestatzen ari zara eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, edo gai horren azpiko gai zehatzen bat polikiago aztertuko duzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

ARLOA	GAIAK	
Arkitektura	Arkitektura tradizionala.	Azaldu gogoko duzun arkitekto ezagun baten lana.
Artea	XX. mendearen hasierako abangoardiak.	Museoak: iragana, oraina eta etorkizuna.
Biologia	Genetika.	Zelularen kontzeptu historikoa.
Ekonomia	Burtsa.	Sistema kapitalista eta haren garapena.
Filologia	Literatura Europan gaur.	Ahozko eta idatzizko hizkuntza.
Filosofia	Descartes.	Existenzialismoa.
Fisika	Newtonen legeak.	Optika.
Geografia eta Historia	Erromatarren inperioa.	Kartografia.
Geologia	Glaziarrek.	Fosilak.
Gizarte zientziak	Alderdi politikoak.	Demografia arazoak.
Heziketa fisikoa	Beroketa: oinarriak eta motak; beroketa eta emaitzak.	Bakarkako kirolak.
Informatika	Datu-baseak: eredu hierarkikoa eta erlazionala.	Segurtasuna informatikan.
Informazioa	Gizonaren irudia publizitatean.	Kazetaritza digitala.
Kimika	Lotura kimikoa.	Industria kimikoa gaur egun.
Matematika	Estatistika deskribatzailea.	Multzoen teoria.
Osasuna	Aho-higienea.	Osasunerako hezkuntza.
Pedagogia	Elebitasuna eta hezkuntza.	Indarkeria eskolan.
Psikologia	Piaget.	Psikoanalisi.
Teknologia	Itsasketa gaur egun.	Teknologia eta gizartea.
Zuzenbidea	Merkataritzako sozietateak.	Zuzenbidezko estatuaren ezaugarriak.



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea  
EUSKARA ZERBITZUA

**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2005eKO EKAINA)**

**IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):**

**AUKERA (A edo B):**





**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2005eKO EKAINA)**



**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2005eKO EKAINA)**



**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2005eKO EKAINA)**

**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN  
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA**

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
21	23	23	24	25	26	27	28	29	30
31	32	33	34	35	36	37	38	39	40
41	42	43	44	45	46	47	48	49	50

Irakurmena (markatu biribil batekin erantzun zuzenen kopurua)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

Idazlana (markatu emaitza biribil batekin)

GAI	EZ GAI
-----	--------

Oharrak